



## LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

### TXURIREN LAPURKETA. Nerea Lasa Lekunberri

Bazen behin, Leire izeneko neska bat. Leirek, zaldi bat zuen, Txuri izeneko eta asko gustatzen zitzaion mendian korrika egitea. Leireri ere, asko gustatzen zitzaion zaldiz ibiltzea eta horretarako mendira joaten zen egunero hamaiketako eta kantinplorarekin.



Egun batean, Leireri motxila etxean ahaztu zitzaion eta Txurik zeukan sokaz zuhaitz bati lotuta utzi zuen. Etxera iritsi zenean, bere aita telebista ikusten ari zen eta albistegian esan zuten:

—Egun on! Aurreko egunean esan genizuen bezala, bi lapurrek atzo ihes egin zuten kartzelatik. Arrasto batzuk utzi dituzte mendian gora igo direnean. Ikertzaileek oinatz bat aurkitu dute zapaten marka baten ondoan eta kapela bat zuhaitz baten adarrean.

Leire, motxila hartu, eta korrika mendira joan zen. Txuri ez zegoen eta etxera itzuli zen bere aitari Txuri desagertu zela esatera.

—Aita! Aita! Txuri ez dago! Txuri desagertu da!

—Nola? Txuri desagertu da? Goazen bila! Azkar!— Orduan motxila hartu eta ziztu bizian joan ziren bila.

—Non utzi duzu?— galdetu zion aitak.

—Aita, nik zuhaitz horretan lotuta utzi dut!

—Begira, zuhaitzaren azpian marka batzuk daude!

Eta marka horien atzetik joan ziren. Gaua iritsi zen eta kobazulo batean lo egin zuten euriarekin ez bustitzeko. Hurrengo egunean, Leirek txabola bat zegoela esan zion bere aitari eta leihotik begiratu zutenean bi lapurrak ikusi zituzten. Txabolaren atzeko aldera joan ziren eta hor Txuri aurkitu zuten eta Txurirekin herrira itzuli ziren. Herrian poliziarengana joan ziren eta lapurrak non aurkitu ahal zituzten esan zioten.

Azkenean, lapurrak harrapatu eta kartzelara eraman zituzten berriro. Handik aurrera, Leirek ez zuen inoiz gehiago utzi Txuri bakarrik, etxe barruan ez bazen, eta oso pozik bizi izan ziren.